

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**OGASUN ZUZENDARITZA****Interesdunei jakinarazi ezin izan zaizkien jakinarazpenak**

Administrazioari ez dagozkion arrazoiengatik ondokoei ezin izan zaie jakinarazi honako informazioa; beraz, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 108. artikuluan xedatutakoari jarraituz, aipatutako artikulua horrek eskatzen dituen jakinarazteko ahalginak egin ondoren, iragarki honen bidez ondoren zerrendatzen diren zergadunei edo beren ordezkariari dei egiten zaie ondoren zerrendatzen diren prozedurei dagozkien administrazio egintzak bertaratuta jakinarazteko:

Interesdunek edo haien ordezkariak gehienez hamabost egun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera agertzeko. Hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzako Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzua (Samaniego kalea, 14. Vitoria-Gasteiz) aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralera 8:15etik eta 14:30era bitartean, zerga hori kudeatzen duen bulegoak izapidetutako prozeduren berri eman diezaien.

Agertzeko epea igaro, eta interesduna edo bere ordezkaria agertu ez bada, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da legezko ondorio guztietarako, agertzeko emandako epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2019ko irailaren 24a

Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuaren burua
ROCÍO DAMBORENEA ISUSI

IFZ	IZENA / SOZIALATEAREN IZENA	PROZEDURA
18594387Z		Idazkiari erantzuna
B01528363	BASQUE GESTIÓN INVERSIONES SL	Idazkiari erantzuna